

Etxejabeen elkarteei dirulaguntzak ematea etxebizitzetako inmiebleetan igongailuak jartzeko helburuz

Nork egin dezake dirulaguntza-eskaria?

Eskari hori egitea erabaki duten Etxejabeen Elkarteetako Ordezkariek, eta eskariarekin batera beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso inola ere, Esanbidez Ordenaziotik Kanpo gisa kalifikatuak izan diren inmiebleetako etxebizitzak.

Inmiebleek 10 urte baino aintzinasun gehiago izan behar dute, salbuestsita egongo dira horretatik hala ere mugikortasun urritua duten auzotarrak baldin eta mugikortasun urritua etxebizitzan bizitzen jarri ondoren gertatu bazaie, baita salbuestsita egongo dira 70 urtetik gorakoak. Aurreko kasu horietan ez da eraikinaren aintzinasuna kontuan izango, nahiz eta 10 urte baino gutxiagokoak izan.

Inmiebleek gutxienez Beheko Solairua eta horren gainetik 3 solairu gehiago izan behar dituzte. Aurreko atalean esaten zen bezala, oraigoan ere ez da betebeharrak eratorri bazaio norbaiti edo 70 urtetik gorakoren bat bizi bada hor.

Zer dokumentazio aurkeztu behar da laguntza-eskariarekin batera?

- Obrak egiteko udal lizentziaren eskaria.
- Aginpidea duen teknikariak egindako proiektua, hori egokiro ikus-onetsia izan behar du eta aurrekontua diru-ataletan banatua aurkeztu behar da.
- Segurtasunari buruzko oinarrizko azterlana (urriaren 24ko 1627/97 E.D.).
- Igongailua jartzeko Etxejabeen Elkarteak hartu duen erabakiari buruzko akta eta akta horretan jasoko da baita nola Lehendakari edo Administratzaileari laguntzak jasotzeko eta jasotakoaren egiaztapenasinatzeko ahalmena ematen zaion.
- Bere kasuan minusbalido fisiko edo mugikortasun urritua egiaztatuko duen dokumentazioa eta/edo 70 urtetik gorakoek N.A.N.-aren fotokopia, baitapertsona horien errolda-ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

Lehentasuna laguntzak emateko orduan.

Mugikortasun urritua duen edo hirurogeita hamar urtetik gora duen pertsonen bat bizi bada inmiebleren batean, horko Etxejabeen Elkarteak erabateko lehentasuna izango ud hilabete natural bakoitzean aurkeztutako eskarien artean.

Zein kopuru izango du dirulaguntzak?

Laguntza ekonomikoak obren Exekuzio Materialari dagokio aurrekontu (BEZa eta profesionalen ordainsariak barne sartu gabe), eta laguntza horrek ez du inoiz 10.818,22 Euro (gehienezko dirulaguntza) gaindituko igongailu berria jartzeagatik.

Zein dokumentazio aurkeztu behar den behin dirulaguntza eman eta horren %50a jadanik jaso duenean (bere kasuan):

Dirulaguntza eman zaionetik 15 eguneko epean gehienez, igongailua jarriko duen enpresarekin egindako obra-kontratua.

Obra amaitutakoan: Obra Amaitu deneko Ziurtagiria. Momentu horretan emango da dirulaguntzaren beste %50a.

Dirulaguntza zertarako zen kontuan izanik, helburu horretarako erabilia izan dela egiaztatzeko helburuz, igongailua jartzeko obrak egiteagatik ordaindutako fakturen kopiak aurkeztuko dira, aurreko paragrafoan agertzen den kopurua jasotzen denetik hasita hilabeteko epean.